

NORTZUK BEHAR DUTE LAGUNTZA GEHIAGO: GIZONEK ALA EMEKUMEEK



Por lo general sólo la cuarta parte de los clientes de los servicios de Asistencia Domiciliaria suelen ser hombres. ¿Quiere ello decir que los Departamentos de Bienestar Social son más sensibles a las necesidades de las mujeres? Parece, más bien, que lo que ocurre es consecuencia de la especialización y que si las mujeres reciben nominalmente más ayuda es en muchos casos para que puedan seguir ejerciendo su función de cuidadoras del hombre dentro del hogar. En cualquier caso, la proporción de clientes de uno y otro sexo es más equilibrada en poblaciones pequeñas donde las familias tienden a ser más numerosas y en las que los factores de dependencia dependen más estrechamente de la discapacidad del sujeto.

Behin edade batetik aurrera, nortzuk izaten dira laguntza gehiagoren beharrean gertatzen direnak, gizonak ala emakumeak? Badirudi besterik gabe, eguneroko praktikan arabera, emakume adinekoa, betiko amona, Barbiarren poeman azaltzen zaigun "amaxo" bezala, txukuna, arina, bizia, eta

oraindik ere besteei laguntzeko sasoian azaltzen zaigula irudimenean. Gizona berriz gehiago ikusi ohi dugu agure jenio txarreko eta baldr bezala, trabagarria sarritan, gaixo askotan, eta ezgauza etxeko lan premiazkoenak egiteko, bizitza guztian ez bait ditu gizonaren betekizun kontsideratu.

Ez dakit, nerea bezala, beste askorena den inpresio hau, egia ote den, baina badaikit gizarte langue asko sarritan ikusten direla etxe laguntzarako dituzten ordu urriak banatzerakoan nolabaiteko dilema horren aurrean: diskapazitate berdina edo ahalatasun parekoa duten emakume edo gizoneko kasu baten aurrean ez al dago gizonari laguntza gehiago emateko arriskurik, gizona berez gauza batzuk egiteko ezgai kontsideratzen delako eta hain zuzen ere bizitza osoan bere beharkizun premiazkoerik erantzuteko laguntza eman zaiolako?

Norbaitek esango du hori egitea behin gehiago sexismoan erortzea litzatekeela, eta izango dira baita ere inkompetenziaren zergatiari begiratu gabe, edo kontutan hartzen direlarik ere, ezin daitekeela sexuen arteko paretasunaren izenean laguntzarik gabe utzi etxeko lanik elementalenak egiteko gai ez den pertsona.

Gai honetan urrutirago joan gabe kontutan hartzekoa da prolema ez delà teoriakoa, eta are gutxiago garrantzirik gabea, eta nola ez, beti bezala sexu zatiketaren barnean klase zatiketaren eragina ere zaindu beharra dagoela soluzioak bilatzerakoan,

sintomatologia; aukera gehiago izango duelarik honek edo arrisku gehiago hobeto esan, psikosiaren etiketa jasotzeko erantzun diagnostiko bezala.

Ezin ukatu gizarte langileari ere maila soziala, kultura, hezkuntza mota, famili historia, eta abarrek ere kondizionatu dezaketela prolema bat aztertzerakoan eta errezago gerta liezaiokela eskakizun batzuk onartzea beste batzuk baino. Zaila da jakiten zerbitzu sozialek sexuaren arabera diskriminaziorik egiten duten etxe laguntza edo beste edozein zerbitzu mota eskaintzerakoan.

Jakin, badakigu, absolutoki eta proportzionalki ere laguntza gehiago ematen zaio la emakumeari gizonari baino. Horrek ez du esan nahi noski, aitortu dezagun lehen bait lehen, ohizko den diskriminazioaren aldeantzikoa ematen denik zerbitzu sozialean, gizonaren kaltetan noski. Egia da bai etxe laguntza jasotzen dutenen laurdenak direla gizonekoak Gipuzkoan —proportzio berdin berdina ematen da Frantzia ere— baina hortik ondorio bezala gizarte langileak emakumearen beharrak kontsideratzeko orduan begiramen edo sensibilitate gehiago dutela ateratzea ez da zilegi.

Taula I.-ETXE LAGUNTZA JASOTZEN DUEN POPULAZIOA SEXUEN ARABERA

	Donostia	Gipuzkoa Donostia ezik	> 1.000 biztanleko udalak	Gipuzkoa osoa
Gizonak	20,0	28,3	47,0	26,0
Emakumeak	80,0	71,7	53,0	74,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

zeren eta emakumeen artean ere azken finean, bizitza osoan etxeko lanetan jardun dutenek eginkizun hoiek beste norbaiten kargu utzi izan dituztenek baino gaitasun gehiago, eta egoera fisiko parekoan, laguntza beharra adierazteko aukera gutxiago izango bait dute.

Jakina da medikuei orokorki eta psikiatrei erezi —mundu guztiari bezala bestalde— zaila zaiela maila sozialaren eraginetik libratzea eta gaisoa beren girokoa denean honen sintomatologia ulergarriago egiten zaienez joera gehiago izango dute neurosia sinple bezala kontsideratzeko eta alderantziz, arrotza eta grabeago egingo zaie beste kultura batean integraturiko gaisoaren

Lehendabiziko taulan ageri denez Gipuzkoa mailan ehuneko 26 dira gizonekoak etxe laguntzaren bezeroen artean eta proportzioa gutxitu egiten da hiri haundietan. Donostian esaterako, ehuneko 20 besterik ez dira gizonak eta udal txikietan berriz sexoen arteko oreka ia erabatekoa gertatzen da, % 47 gizonak eta % 53 beraz, emakumeak direlarik.

Bi galderen aurrean aurkitzen gara beraz. Lehena, zergatik dira gehiago etxe laguntza jasotzen duten emakumeak? eta bigarrena, zergatik gertatzen da hori batez ere hiri haundietan.

Ezaguna da noski 64 urte bete dituen populazioa delà etxe laguntzaren bezeroen

Taula II.-GIZON ETA EMAKUME PROPORTZIOA POPULAZIOAN ETA 65 URTE EDO GEHIAGOKOEN ARTEAN

Gipuzkoa								
	Donostia		Donostia ezik		a 1.000 bizt.		Gipuzkoa	
	Prop. Orok.	a 65 urte	Prop. Orok.	S 65 urte	Prop. Orok.	a 65 urte	Prop. Orok.	S 65 urte
Gizonak	47,1	35,5	50,4	40,8	54,1	49,4	49,6	39,1
Emakumeak	52,9	64,5	49,6	59,2	45,9	50,6	50,4	60,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

artean gehiengoa, eta bide batez gehiago direla edade horretara iristen diren emakumeak, baina bistako da gehiago izate hutsak ez duela justifikatzen aipaturiko sexoen arteko desproporzioa. Horrez gainera eta bigarren erantzuna litzateke hau, orokorki gehiago izatez gainera eta bigarren erantzuna litzateke hau, orokorki gehiago izatez gainera gehiago dira baita ere absolutoki, eta erlatiboki ere, diskrapazituriko emakumeak. Ikerketa askok azaldu dutenez —gureak ere Araban hala diote— 65 urtetik gorako populazioaren artean diskapazitateei loturiko patolojiak sarriagoak dira emakumeen artean. Ez gara galduko orain fenomeno honen interpretazioetan, ez bait daude teoriko guztiek ados hipotesien inguruan, baina dudan ezin jarri daitekeena fenomeno bera da, eta derrigorrez onartu behar beraz diskapazitatei dagokioez behintzat objetiboki gizonekoak baino sarriago gertatzen direla etxe laguntzaren beharrean.

Bi arrazoi hauen pisua edo eragina desestimatzen ez dugularik ere bistako da beste arrazoiren baten laguntzarik gabe ezin dutela justifikatu etxe laguntzaren estatistikak agertzen duten errealitatea. Bestalde, errepikatu beharra ote dago fenomeno sozialek ez dutela inoiz ere kausa bakar bat izaten eta elkar loturiko fenomeno desberdin askoren ondorio izaten direla?

Hirugarren arrazoi bat, emakumearen rol ohizkoari dagokiona kontutan hartuz gero, badirudi errealitateak lehen instantzia edo irakurketa batean behintzat alderantzizkoa izan beharko lukeela, baina jakina denez errealitatea adierazten duten datoak bezala tematsua da eta hor dago lehendabiziko taulan. Esan nahi dugu etxeko lanen aurrean "autolaguntza" eginkizunen aurrean bezala, emakumea kompetenteago izanik, gizon lagunduen kopuruak haundiago izan beharko lukeela. Irakurleak igerrri du noski faktore horren eragina estaltzen duen arrazoi zain izan daitekeen. Gutxi gora behera gizo-

nak eta emakumeak bakarka aukera berdintsua dute, diskapazitate maila berdinean noski, etxe laguntzaren zerbitzuak jasotzeko. Baina senar emazte bikotea osatzen dutenean berriz gauza erabat aldatzen da, edo aldatu daiteke gure eritziz. Diskapazitatua emaztea bada, senarra danean baino aukera gehiago izango bait du bikoteak —nominalki emazteak— laguntza jasotzeko. Senar ezin ahalduak normalki, eta diskapazitatea oso grabea ez danean, gehienez ere lan gehiago emango du baina ez ditu nabarmenki urrituko etxe hortan zeuden lan indar efektiboak eta alderantziz, emaztea gaiso gertatzen denean senarraren laguntza potentziala ez da oztopo izango zerbitzu sozialeko eskuratzeko esperientziari dagokionez, bai bait dakite gizarte langileak, gizonaren laguntza ez delà fidagarria.

Zergatik ordea aipaturiko faktoreen eragina ez da hain nabarmena mila biztanletik beherako herri txikietan? Ez dezagun ahaztu lehendabizi Donostian 65 urtetik gorako populazioaren artean ehuneko 35,5 besterik ez direla gizonekoak eta herri txikietan berriz ehuneko 49,4; bada hor beraz tarte bat behintzat etxe laguntzaren bezeroen artean gizonekoaren tasa haundiago izan dadin herri txikietan haundietan baino.

Kontutan hartzekoa da baita ere hirietan haundiago delà bakarrik eta binaka bizi den biztanlegoaren kopurua, edo beste era batera esateko haundiago delà herri txikietan familia zabalaren kopurua. Horrez gero lojiko da hauetan ere haundiago izatea, proporzionalki noski, ezkontideaz gainera beste ahaideren batekin bizi den jendearen laguntza eskakizunak jasotzea Udaletxeetako Ongizate departamentuetan, eta pentsa daiteke ahaide askoren artean bizi den pertsonaren beharrak neurtzerakoan errazago delà bere diskapazitatea objetiboki neurtzea. Bestalde, pertsona hauen beharrak ere haundiagoak izango dira beren inguruneak ezin bete ditzazkenez. Kasu hauetan bada.

Taula III.-ETXE LAGUNTZA JASOTZEN DUEN POPULAZIOA FAMILI MOTAREN ARABERA

	Donostia	Gipuzkoa Donostia ezik	£ 1.000 biztan- leko udalak	Gipuzkoa
"Bakarrak"	47,6	31,8	18,7	36,1
Ezkontidearekin	23,8	26,3	28,0	25,6
Ahaide gehiagorekin	26,1	39,6	50,7	35,9
Familiarik gabe	2,5	2,3	2,7	2,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

ez da hain nabarmena, hipotesia hutsean ari gara noski, sexuari loturiko rol zatiketaren eragina, hau da, gizonaren inkompetentziak anulaturik edo disimulaturik geratzen dira diskapazitate sakonen eraginez edo eta grabeak ez direnean inguruneak bete ditzazkeelako (*).

Horrek esplikatuko luke neurri batean noski, mila biztanletik beherako herrietan etxe laguntzaren bezeroen artean ematen den gizon eta ernakumee arteko oreka nolabaitekoa.

Illgn. taulan ezin argiago ageri da mila biztanletik beherako herrietan etxe laguntza jasotzen dutenen erdiak pasa direla, ezkontideaz aparte, ahaide gehiagorekin bizi direnak, Donostian baino bi aldiz gehiago, eta pentsatzekoa da gertakizun hau aztertzen ari garenarekin loturik datorrela.

Beste zenbait faktore ere kontsideratu beharko litzateke noski arazo honetan. Adibidez residenzializatzeko tasaren bitartez ikusi beharko litzateke gizonetako zerbiztu astunagoen laguntza eskatzen duten —ala ematen zaien— eta horregatik diren baita ere emakumeek etxe laguntza bezalako zerbiztu arinen eskale ugariagoak. Gure irudiko arrazoirik eragingarriena aipaturiko lan zatiketarena da eta emakumeak laguntza gehiago ematen bazaio hain zuzen ere bere bitartez gizonari laguntzen jarraitu ahal izateko izango da askotan bere betiko eginkizunean jarraitu ahal dezan.

Etxe laguntza adjudikatze orduan kontutan hartzekoak al dira kulturaren maila sozialaren edo beste zenbait faktoreren eragina —gizon emakume rol zatiketaren ondo-

riok bame— ala behar objetibo erantzun behar zaie diskapazitatearen eta minusbaliaren definizio zehatz eta zorrotz bat onartuz?

Jakina denez ome (Osasunerako Mundu Erakundea diskapazitateen artean "domestic disabilities" kategorian hartzen du kontutan (50-51 kategoriak) janaria prestatzeko gaitasuna, garbiketa egitekoa, etab. bame direlarik, baina badakigu baita ere diskapazitatea ahaltsun eza edo gutxitzea dela "resulting from an impairment", hau da, defizientzia baten ondorioa eta hau, "impairment", estruktura edo funtzio psikologiko, fisiologiko, edo anatomiko baten galtzea edo anormaltasuna denez, amak arraultzak frijitzen irakatsi ez izatea ezin kontsidera dezakegu diskapazitate bezala osasunaren esperientziaren barrenean noski. Aipaturiko omek "International Classification of Impairments, Disabilities and Handicaps"en, minusbaliaren artean dependentsia fisikoa kontsideratzerakoan espreski uzten ditu kanpoan kulturalki determinaturikoak: "culturally determined dependence, such as the customary dependence of an employed male on his spouse... (**).

Badira ordea etxe laguntzaren teorian bi printzipio oso kontutan hartzekoak. Aide batetik laguntzaileak ez duela bezeroak egin dezakeen lanik egin behar, eta bai lana eratu, eta egiten irakatsi, bere autonomia ahalik et haundiena izan dadin. Bestalde, etxe laguntza ez da behin betirakoa, premien natura eta neurria aldatuz doan eran erantzun neurrikoa eta aproposa eman behar zaie. Printzipio hauek gogoan izan ezker ez legoke zergatik ez emanik erantzun egoiki bat gizonen premia bereziei eta emakumeenei noski diskriminazioetan erori gabe.

(*) Lisiba egiteko gai ez den pertsona bat, garbigailua jartzen ikasi ez duelako adibidez, iztripu baten ondorioz tetraplejiko geratuko balitz, bere inkompetentzia disimulaturik edo anulaturik geratuko litzateke diskapazitate sakon horren eraginez. Gauza bera noski familia ugari baten artean bizi den inkompetentetaren kasuan inguruneak bere behar oinarritzko erantzuten dioenean.

(**) Kulturalki determinaturiko dependentsia, nola gizon langileak normalki bere emaztearengandik duena.